

## AKTA

# UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA

<b>Akta zenb.</b>	
<b>Organoa</b>	Baliarraingo Udala
<b>Batzarra</b>	Lehenengoa
<b>Tokia</b>	Udaletxeko areto nagusia
<b>Eguna</b>	2016-01-09
<b>Deialdia</b>	Lehenengoa
<b>Hasiera ordua</b>	12:00 etan
<b>Amaiera ordua</b>	12:45 etan

### Bertaratutakoak:

- 1.-Olatz Iriarte Argaya
- 2.-Ane Garmendia Gorostidi
- 3.- Luis Maria Lopez Garcia Uceda
- 4.-Joseba Jokin Garmendia Etxeberria

Mikel Joseba Telleria Irastorza bertaratu eizna azaldu du , baina urtarrilaren 5ean agerpena egin dela jakitera ematen da , eta idazkariaren aurrean zinegotzi kargua hartzea onesten duela aitortu duela eta kanpotik itzultzerakoan berronetsiko duela .

### AZTERGAIAK:

1. Adineko mahaia eratzea.

2. Udala eratzea.
3. Alkatea aukeratzea.

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

### 1.- Adineko mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

### Erabakia

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Joseba Jokin Garmendia Etxeberria

Zinegotzirik gazteena: Ane Garmendia Gorostidi

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### 2.- Udala eratzea

Adineko mahaia zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta eskualdeko Hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute.

### Erabakia

**Zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, adineko mahaia Udala eratutzat jo du. Hona hemen zinegotzien zerrenda:** Olatz Iriarte Argaya, Ane Garmendia Gorostidi, Luis Maria Lopez Garcia Uceda, Joseba Jokin Garmendia Etxeberria

Jarraian, idazkariak agiri hauek aurkeztu ditu:

**1.- 2015ko Aurrekontua:**

**Baliarraingo Udalak 2015ko urtarrilaren 20 an egindako Osoko Bilkuran onartu zuen. Kapituloka laburtuta ondorengo hau da:**

2015ko AURREKONTUA

SARRERAK			GASTUAK		
KAP	AZALPENA	EUROAK	KAP	AZALPENA	EUROAK
1	Zerga Zuzenak ...	21.900,00 €	1	Pertsonalaren lansariak ...	83.980,00 €
2	Zeharkako zergak	2.000,00 €	2	Ondasun korront. eta zerbi.gast.	48.150,00 €
3	Tasak eta beste sarrerak ...	7.610,00 €	3	Gastu finantzieroak	500,00 €
4	Transferentzi korrontek ...	180.151,00 €	4	Transferentzi korrontek ...	38.430,00 €
		6.900,00 €			
5	Ondare Sarrerak ...	18.352,00 €	6	Inbertsio errealak ...	52.473,67 €
6	Inbertsioen salmentak ...		7	Kapital Transferentziak ...	2.600,00 €
7	Kapital Transferentziak ...	25.743,50 €	9	Pasibo finantzieroak	18.170,83 €
	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>244.304,50 €</b>		<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>244.304,50 €</b>

**2016 ekitaldirako aurrekontuaren zirriborroa 2015eko abenduko herri batzarrean aurkeztua dago.**

**Gainbegiraketa bat eman eta onarpena eman behar zaio**

## **2.- ARKEOAREN EGOERA ETA TESORERI EGOERA:**

	<u>2016-01-04</u>
Kutxabank	17.896,40
Euskadiko Kutxan	8,35
Lagapen kontuan	280.000,00

## **3.-MAILEGUAREN EGOERA**

Baliarraingo udalak pilotalekuko lanak finantziatzeko mailegu bat hitzartu zuen kutxa entitatearekin 2002 martxoaren 4ean, 219.313,96€ Mailaguaren amaiera 2017eko martxoaren 4ean izango da eta interesa %0,082 ekoa da .

2015eko abenduaren 30 eko datarekin 23.513,19 euro ordaintzeko geratzen dira.

Maileguaren ordainketa hiru hilabetez behin egiten da, eta kapitala hiruhileko 4800 € iritsi gabe eta interesa kontzeptuan 5 euro hiruhileko €. Urteko , bataz beste, 20000 euro iritsi gabe urtean .

## **4.-UDALEKO INBENTARIOA**

Baliarraingo udalak inbentarioa egina du duela 15 urte, baina inbentarioa ez dago onartua, eta gutxiago oraindik eguneratua ere.

## **3.- Alkatea aukeratzea**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- 100 eta 250 biztanle tarteko udalerrietan Alkategaiak Zinegotzi guztiek direla; eta boto gehien lortzen dituen Alkatea izendatuko dela.

Horrela bada, Alkategaiak dira:

Olatz Iriarte Argaya, Ane Garmendia Gorostidi , Luis Maria Lopez Garcia Uceda ,Mikel Joseba Telleria Irastorza , Joseba Jokin Garmendia Etxeberria .

Bozketa ahoz egin da eta guztien adostasunarekin , OLATZ IRIARTE ARGAYAk lau boto jaso ditu .

## Erabakia

Bozketak erakusten duenez, OLATZ IRIARTE ARGAYA da alkate.

Ondoren, OLATZ IRIARTE ARGAYA andreak onartu egin du alkate izatea. Horrela, bada, Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, OLATZ IRIARTE ARGAYA hartu egin du alkate-kargua.

Martzelino Dorronsoro Galarraga , lehengo alkateak , hitza hartu eta mahaikide guztiei eskerrikasko eman dizkie kargua hartzeagatik , eta bereziki Olatz Iriarte Argayari , eta horren seinale , alkatetzako makila eman dio .Olatz Iriartek ere , mila esker eman dizkio Martzelino Dorronsoro Galarragari , hogei urte hauetan herriaren alde egindako lanagatik .

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak

Alkateak

Idazkariak



BALIARRAINGO UDALA  
Ayuntamiento de Baliarrain  
GIPUZKOA